



ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK? >>>



TALDE NORTASUNAK ETA KOMUNIKABIDEAK

Josu Amezaga Albizu

Euskal Herriko Unibertsitatea

Helbide elektronikoa: josu.amezaga@ehu.es

NORTASUNA ETA KULTURA

Sarritan nahasten dira, zenbait diskurtsotan, talde nortasuna eta kultura. Nonbait "gure nortasun ikurrak zaindu behar ditugu" eta antzekoak irakurtzen ditugunean, ez dakigu ondo geure kulturaz ari garen, ala gure bereizgarritasuna adierazteko erabiltzen ditugun ikurrak ote diren jagon beharrekoak. Horregatik garrantzitsua da kontzeptu biak bereiztea, are gehiago bi eremuetan horren aldaketa sakonak gertatzen ari diren aro honetan.

Laburki esanda, jende talde batek errealitatea atzemateko eta haren aurrean jokatzeko duen moduari deitzen zaio *kultura*. Edo, soziologian esan ohi denez, natura ez den guztia; hots, zama genetikoak eman ez digun baizik ingurukoengandik ikasi dugun definizio eta arau multzoa. Zer den ona edo komenigarria, zer den arbuigarria; nola babestu hotzetik, nola erlazionatu bestearekin; eta abar. Horri esker egin ahal diegu aurre errealitate ezberdinei, izan fisikoa, soziala zein espirituala. Talde bakoitzak berea garatzen du, testuinguru jakin batean.

Kulturaren bidez errealitateaz egiten dugun definizioan, geure burua ere definitzen dugu, eta hemen dator *nortasuna*. Hots, *gu* nortzuk garen eta *besteak* nortzuk diren, definizio kulturala da, ez naturala. Batzuek azal bel-

tzarana izan dezakete eta beste batzuek zurbila, naturaz; baina hortik pertsonak bi multzotan bereiztu (beltzak eta zuriak), kulturak egiten ditu. Zentzu horretan, nortasuna kulturaren zati bat dela esan dezakegu: geure kulturak esaten digu nor *garen* eta nor *diren*.

Hain kontzeptu ezberdinak sarritan nahastu izana, zeretik dator: historian zehar, kultura ezberdinetatik nortasun ezberdinak sortu dira; kultura, taldea definitzeko faktore garrantzitsua izan da. Areago, taldea bereizten duten eta nortasuna ematen duten beste eragile garrantzitsu batzuek kultura baliatu dute haien inguruan nortasuna eratzeko. Adibide bat estatu nazioa dugu. Estatu nazioak bide ugari ditu bere mendeko jendartea talde gisa eratu eta nortasun kolektiboa eraikitzeko: legea (denei *nortasun agiria* ezarriz), gerra (jendartean elkartasun eta *beste nazio-ekiko* aurkakotasun sentimenduak sortuz), komunikabideen sistema, eta abar. Baina horiez gain, estatu nazio modernoak kultura erabili izan du nazio nortasuna eraiki eta finkatzeko (gutxi dira kulturantzatasunaren oinarrian eraiki diren estatu nazioak).

Adibide honek beronek erakusten digu nortasunak, kulturaren zati bat bada ere, eragin handia izan dezakeela kulturaren bertan. Jende multzo batek bere burua talde gisa definitzen badu, orduan berariaz ekin diezaioke bere kultura babestu eta garatzeari, horrek talde gisa indartu egiten duelakoan. Areago, talde gisa definitu den horretan egon daitezkeen beste kulturak ezabatu egin ditzake, horrekin nortasun lehiakideak baztertu nahirik. Estatu nazio gehienen historia horrelakoxea da, estatuak nazioa definitu ostean kultura bakarra ezarri nahiaren historia alegia, horren bitartez nortasuna ere bakarra izango delakoan. Honengatik guztiagatik esan ahal dugu talde nortasunetan kulturak berebiziko garrantzia izan duela historian zehar; eta azken mendeetako nazio nortasunetan ere, halaxe gertatu dela.

Kultura eta nortasunaren arteko dialektika hau ulertzeko, oso argigarria deritzogu Francisco Letamendiak egiten duen “izaera etnikoa” eta “nortasun etnikoa” kontzeptuen arteko bereizketari (Letamendia 1997). Autore honek dioenez, izaera etnikoa talde baten bizitzaren epe luzean osatzen da, eta talde hori gainerako taldeetatik bereizten duten ezaugarriek osatzen dute: hizkuntza, ekonomia, bizimodua, ohiturak eta abar; adiera soziologiko zabalenean, *kultura* esango genuke. Taldeak bere buruaren autopertzepzioa du, eta besteak ezberdin ikusten ditu. Baina hori konstatazio bat da, beste ezer baino gehiago. Taldeak bere burua mehatxupean ikusten duenean ordea (esaterako nazio estatuaren joera uniformatzailearen aurrean), orduan bere bereizgarritasuna propio lantzen hasten da, nortasun etnikoa eraikiz: ezberdintasuna ez da soilik konstatazio bat premia bat baizik, talde gisa iraun ahal izateko ezinbesteko baldintza. Une horretan, taldearen ezberdintasuna adierazten duten ezaugarriek berebiziko garrantzia hartzen dute, ikur bilakatuz. Eta ikur gisa ere, kultura lehen mailako bereizgarria da.

Kulturaren bidez errealitateaz egiten dugun definizioan, geure burua ere definitzen dugu, eta hemen dator nortasuna. Hots, gu nortzuk garen eta besteak nortzuk diren, definizio kulturala da, ez naturala.

Taldeak bere burua mehatxupean ikusten duenean ordea (esaterako nazio estatuaren joera uniformatzailearen aurrean), orduan bere bereizgarritasuna propio lantzen hasten da, nortasun etnikoa eraikiz: ezberdintasuna ez da soilik konstatazio bat premia bat baizik, talde gisa iraun ahal izateko ezinbesteko baldintza.

Globalizazio garaiko estatuak aldiz nabarmen utzi du gure bizimoduan eragin zuzena duten arazo handiei aurre egiteko gaitasun eza. Horrek ahuldu egiten du estatua, ez bere mendeko herritarren aurrean (alde horretatik oso sendo jarraitzen du), baina bai talde nortasun emaile gisa.

Talde nortasuna eta kultura bereiztu ahal izateko adibide ezin hobeak, euskal nortasuna bera daukagu. Erramun Baxokek eta beste hainbatek argitaratutako lan eskerga batean argi ikusten da euskal nortasuna oso modu ezberdinetan ulertzen dela Euskal Herriko lurraldeen arabera (Baxok et al. 2006). Hartara, Euskal Autonomi Erkidegoan inor euskal herritartzat hartzeko lehenesten diren baldintzak bertan biziitzea eta hala izateko borondatea dira. Nortasuna, hartara, zentzu geografikoan eta politikoan (borondatezkoan) ulertzen da. Beste muturrean, Ipar Euskal Herrian, euskal nortasuna jatorriari (jaioterria) eta kulturari (hizkuntza) lotuta agertzen da, borondatea oso gutxienez izanik esanguratsua. Nafarroa bi muturren artean kokatzen da, nolabait esateko: jatorria eta borondatea dira gehien aipatutako ezaugarriak.

Datu hauek oso modu grafikoan erakusten dute euskal nortasuna ez dela, gaur egun, dimentsio bakar baten arabera definitzen, batzuentzat oinarri politiko-administratiboa duen bitartean beste batzuentzat jatorrizko zerbait baita, edota hizkuntzak emandako zerbait.

IKURREN GARRANTZIA

Ikurrek nortasun adierazle gisa nola jokatzeko duten ulertzeko, baliagarria zaigu semiotikak zeinuen artean egiten duen honako bereizketa: erakusleak eta ikurak (Basterretxea 1997). Lehena zerbaitengandik eratorria da, eta haren presentziaren berri ematen digu: keak suaren presentzia adierazten duen bezalaxe, hizkuntza bat herri baten presentziaren erakuslea da. Ikurra aldiz, konbentzioz zerbait adierazteko hautatutakoa da; ikurri-na kasu. Hemen interesatzen zaiguna zera da ordea: talde batek bere nortasuna adierazi nahi duenean, horretarako propio sortutako ikurak erabil ditzake (ikurrina esaterako), edota bere ezaugarriaren bat hartu —hots erakuslea— eta ikur gisa erabili. Horrela, kultura bera bihur daiteke taldearen nortasunaren adierazlea.

Ikurak garrantzi handikoak dira talde handien identifikaziorako, hala kanpora begira nola talde barrura begira. Craig Calhoun soziologoak dioenez, nortasuna partekatzen duten komunitateak bi motatako harremanetan oinarri daitezke: aurrez aurreko harremanetan eta bitartekatutako harremanetan (Calhoun 1991). Lehena talde txikien kasua da, non taldekideek elkar ezagutzen baitute. Harreman zuzen hauetan ehuntzen da taldea, eta hortik etor daiteke talde nortasuna. Lagunartea edo auzo txikia izan litezke adibideak. Beste komunitate batzuetan aldiz jendeak ez du elkar ezagutzen: talde handien kasua da. Talde hauetan badugu beste kideen berri, baina ez dugu harreman zuzenik haiekin (gutxi batzuekin baino ez). Adibide errazena nazioa dugu. Ez ditugu nazioak guztiak zuzenean ezagutzen, baina badakigu hor daudela. Haiekiko harremanak baditugu izan, baina egitate bitartekari batzuen bitartez. Komunikazio sistemak, erakundeak eta abar izan ohi dira egitate bitarte-

kari garrantzitsuenak. Horrela, nazio nortasunaren kasuan Estatua edota eremu publikoa (*public sphere*) izan daitezke bitartekari nagusiak; nortasun erlijiosoaren kasuan Eliza; eta abar. Zuzenean ezagutzen ez ditugun kideak ordezkatzan dituen neurrian, bitartekari hauekin harremana izatean taldearekiko harremana gauzatzen dugu.

Bitartekatutako harremanen gainean eraikitzen diren komunitateak dira Benedict Andersonek aztertutako “komunitate irudikatuak” (Anderson 1993). Irudikatuak dira, taldekideak zuzenean ezagutu barik irudikatu egiten ditugulako, bitartekarien bidez. Baina batzuek ulertarazi nahi izan duten ez bezala, Andersonen irudikatu terminoak ez du faltsua edo irrealia esan nahi. Batetik komunitate hauek ezaugarri amankomun batzuen gainean eraikitzen dira (partekatutako kultura bat izan daiteke adibidez, edota etorkizunerako asmo bat); inon ez da komunitate bat irudikatzen, aldez aurretik jende multzo horrek ezer partekatzen ez badu; nekez sentituko naiz ni japoniar borondate hutsez, japoniartzat jotzen ditudan haiekin ezer (jatorria, hizkuntza, kultura, bizilekua...) partekatzen ez badut. Bestetik irudikatutako komunitateak errealak dira beren ondorioetan: nazioaren aldeko gudan (funtsean, zuzenean ezagutzen ez dugun jende horren aldeko borrokan) bizitza emateko zein kentzeko prestutasuna da horren adibide gordinena.

Komunitate handietan hartara, ikurrak garrantzizkoak dira taldekideak identifikatu eta norbera taldearekin identifikatzeko. Izan ere haien bitartez egiten baitugu besteekiko identifikazioa. Esan beharrik ez dago informazioaren jendartean bereziki gogoangarria dela fenomeno hau: ikurrak nonahi zabaltzen direlarik, identifikaziorako aukerak ere zabaldu egiten dira. Horrela, taldearen identifikaziorako propio sortuak ez diren egitateak ere (objektuak zein praktikak) berebiziko nortasun ikur bilaka daitezke, areago —geroxeago aipatuko dugun moduan— nortasun emaille nagusi izandako beste eragile batzuk eginkizun horretan ahultzen ari direnean. Futbola, bere ingurumari adierazkor guztiarekin (taldeen koloreak, kamisetak, ereserkiak, espazioak, denborak eta abar) adibide ezin hobea dugu.

Nortasunak globalizazioaren garaietan

Orain artekoa laburtuz, esan dezagun talde nortasunak kulturaren zein beste ezaugarri batzuen inguruan era daitezkeela. Hau garrantzitsua da, globalizazioaren aroan gertatzen ari diren eraldaketa sakonen aurrean talde nortasunen inguruko hausnarketa egiteko. Izan ere, kulturak zein estatu nazioak errotik ari dira aldatzen. Kulturen kasuan, haien arteko elkartrukea eta mestizaia gero eta handiagoak dira, batetik; testuinguru soziohistorikotik at eta modu industrialean ekoizitako kultur produktuen eragin gero eta handiagoa pairatzen dute, bestetik. Honek guztionek kulturen homogenizaziorako joerak sortzen ditu. Estatu nazioen kasuan,

Estatu nazioaren eremuan eraturako gizarte zibila ahuldu, eta harekiko desatxikimendua gertatzen da. Honek ez du ordea taldetasuna desagerrarazten; aldatu egiten du. Komunitarismorako joera indartzen da, globalizazioak dakartzan ziurgabetasuna eta zentzuaren galeraren aurrean jokatzekeo estrategia gisa.

*Jendarte tradizional
batean pertsona baten
etorkizuna baldintzatuko
zuten eragile nagusiak
(maila soziala, jatorria
eta beste zenbait) ez ziren
hainbeste aldatzen.
Eragile horiek, bestalde,
garrantzi handikoak ziren
norberaren talde
nortasuna eratzeko
orduan. Gaur egun aldiz,
mugikortasun espazial
zein soziala dela-eta,
kontsumoak gure bizitzan
hartu duen pisua dela-eta
edota eraldakuntza
sozialen abiada dela-eta,
oso zaila da inoren
etorkizuna asmatzea.*

estatuz gaineko erakundeen indarrak (Europako Batasuna gure inguruan) ahuldu egiten du estatuaren autonomia, eta horrekin nazio nortasuna birsortzeko zenbait mekanismo: espazio politiko, ekonomiko zein komunikatibo nazionalaren mugak, ikur nazional ugari (txanpona adibidez), eta beste zenbait. Bestalde, lehenago estatua herritarren ahaide nagusi gisa agertzen zen jendearen aurrean, gure bizimoduan eragin zuzena zuten erabakiak hartzen zituen erakunde gisa; horrek indartu egiten zuen nazio nortasuna eratzeko zuen ahalmena. Globalizazio garaiko estatuak aldiz nabarmen utzi du gure bizimoduan eragin zuzena duten arazo handiei aurre egiteko gaitasun eza. Horrek ahuldu egiten du estatua, ez bere mendeko herritarren aurrean (alde horretatik oso sendo jarraitzen du), baina bai talde nortasun emaille gisa.

Gai hau modu zabal eta sakonean aztertu du Manuel Castellsek (Castells 1997). Globalizazioaren ondorioz, dio Castellsek, gure ingurunea gero eta konplexuagoa gertatzen zaigu. Jendearen bizimodua baldintzatzen duten erabakiak gero eta urrunago hartzen dira, dela arlo ekonomikoan zein politiko edo kulturalen. Areago, sarritan erabaki horiek norke eta non hartzen dituen ere zaila da jakiten, kapitalaren mugimendu espekulatiboei ekonomia errealean duten eraginak ondo erakusten duen moduan. Ondorioz, erabaki horietan parte hartzeko edo gutxienez baldintzatzeko gure ahalmena gero eta txikiagoa da. Gizarte zibila, eztabaida publikorako eta botereguneetan nolabait eragiteko gune gisa, desegituratu egin da, Castellsen arabera. Planeta mailako gizarte zibila beharko genuke, esaterako, herritar gisa Iraken inbasioa gelditu edota kapital finantzarioaren demasei mugak jartzeko. Baina gune hori hastapenetan baino ez dago. Bitartean, estatu nazioaren eremuan eratutako gizarte zibila ahuldu, eta harekiko desatxikimendua gertatzen da. Honek ez du ordea taldetasuna desagerrarazten; aldatu egiten du. Hartara, Castellsi jarraituz, komunitarismoarako joera indartzen da, globalizazioak dakartzan ziurgabetasuna eta zentzuaren galeraren aurrean jokatzen diren estrategia gisa. Globalizazioak eragindako deskolokatzeko edo lekuz aldatzearen ostean, berriz ere gure burua munduan kokatzeko duten talde nortasunak indartzen ari dira. Eta nortasun horiek egitura zein ezaugarri ezberdinen inguruan eratu ari dira: kasu batzuetan estaturik gabeko komunitate nazionalen, beste batzuetan erlijioaren (islamaren zein fundamentalismo kristauaren gorakadak horrela uler-tu ahal ditugu), mugimendu sozialen, eta abarren inguruan.

Planteamendu honetatik ez dabil oso urrun Alberto Melucci ere (Melucci 2001). Informazioaren jendartearen ezaugarri nagusizat ziurgabetasuna, etengabe hautatu beharra eta testuinguru aldakorretan bizitzea jotzen ditu. Historiari begiratuz gero, jendearen bizimodua eta talde nortasuna ezartzen zuten baldintza estrukturalen pisua handiagoa zen lehen orain baino. Gaur egun, bereziki herrialde aberatsetan, bizimodua oso arin aldatzen da: hiria, lan mundua, ohiturak e.a. Horrela, jendarte tradizional batean pertsona baten etorkizuna baldintzatuko zuten eragile nagusiak

(maila soziala, jatorria eta beste zenbait) ez ziren hainbeste aldatzen. Eragile horiek, bestalde, garrantzi handikoak ziren norberaren talde nortasuna eratzeko orduan. Gaur egun aldiz, mugikortasun espazial zein soziala dela-eta, kontsumoak gure bizitzan hartu duen pisua dela-eta edota eraldakuntza sozialen abiada dela-eta, oso zaila da inoren etorkizuna asmatzea. Horren ondorioz, banakoak bere taldetasunak etengabe eraikitzen ibili beharra du, eta eraikuntza horretan bere hautua gero eta garrantzitsua goa da, eragile estrukturalen pisua murriztuz doalarik. Informazioaren jendarteak identifikaziorako ematen dizkigun eredu eta aukeren ugaritasunak areagotu egiten dute joera hau. Honek ez du esan nahi banakoak besterik gabe berariaz eraikitzen duela bere talde nortasuna; baina azpimarratu beharra dago norberaren hautua gero eta erabakigarriagoa dela.

Castellsek bezala, Meluccik ere ikusten ditu estaturik gabeko nortasun etnikoak gure aro honetan banakoak dituen nortasun beharrei erantzuteko aukera bezala. Eskaini dezaketen atxikimendua aukera izan daiteke jendartearen konplexutasuna eragiten ari den zentzuaren galerari aurre egiteko. Areago, mintzaira hegemonikoen aurrean talde hauek beren hizkuntzaren bidez errealitatea modu propioan izendatzeko duten ahalmena, Melucciren arabera, abantaila handia da etorkizunari aurre egiteko.

Informazioaren jendartean nortasunak desagertu ez baizik eraldatu egiten direla aztertu duen beste ikerlari bat Barry Wellman dugu (Wellman 2002). Kanadar honek sarean eratutako komunitate birtualak aztertu ditu. Komunitate hauek erakusten duten joera honakoa da: hurbiltasun fisikoan oinarritzen diren taldeen aldean, orain sarean oinarritzen direnak ditugu. Joera hau ez da berria, telefonoaren hedapenarekin, hirietako bizi-moduaren aldatzarekin edo mugikortasunaren handitzearekin ere gertatzen zen. Baina sareak (internet) areagotu egiten du nabarmen. Horrela, sarean ehundutako harremanetatik sozializazio modu berriak sor daitezke, komunitate birtualak eratuz. Komunitate hauen ezaugarri nagusia, beste batzuen aldean, beren arintasuna da: arinak dira, batetik, norbera taldera sartu eta taldetik atera errez egin daitekeelako; eta arinak dira, norberaren inplikazioa txikia izaten delako. Komunitate hauek, bestalde, taldekideen interesen arabera eratzen dira, ez tradizioaren edo baldintza estrukturalen arabera. Baina honek guztionek ez du esan nahi komunitate horiek, une jakin batean, sozialki eraginkorrak izan ez daitezkeenik.

Wellmanen azterketa hauek beste autore batzuek jo duten gaia arakatzten dute: komunikabide elektronikoen kultura zein nortasunaren eta espazioaren artean eragin duten deslotura. Kultura eta espazioaren arteko desloturari buruz, Joshua Meyrowitz izan zen *placeless cultures* terminoa proposatu zuena, kultura telebistaren bidez hedatzen zen neurrian jadanik kultur komunitatea espazio fisikoaz haratago zabaltzen den eremu baten gainean eraiki zitekeela ohartaraziz (Meyrowitz 1985). Ildo beretik, hizkuntzak fokatuz, John Sinclairrek *geolinguistic regions* kontzeptua proposatua du: hots, satelite bidezko telebistari esker hizkuntza komunitatearen espa-

AEBtan bizi diren 40 milioi latinamerikarrak, dio Sinclairrek, kubatarrek, mexikarrak, puertoricarrak eta abarrak ziren bertara iritsitakoan. Baina denek artean komunitate latinoak sortu da, talde nortasun gisa. Bilakatze horretan telebistak garrantzi handia du.

Ikerkuntzak agerian uzten du nola testuinguru gero eta kulturantzagoetan, gaur egungo migrariet ez duten beren jatorrizko nortasunari uko egin beharrik, harrerako herrialdean integratu ahal izateko; aitzitik, jatorrizko nortasuna elikatu eta adieraztea harrerako jendartearen integratzeko estrategia bat izan daiteke. Halaber, ikerketa hauek erakutsi dute nola birdefinitzen diren, komunikabideen bitartez eraikitzen diren mugaz gaindiko eremu publikoetan, talde nortasunak, hala nazio nortasunak nola nortasun erlijiosoak ere.

zioa ez da jadanik fisikoa soilik; planeta mailan hizkuntza horretako telebista erabiltzen duten hiztunek osatzen duten espazioa da (Sinclair, Jacka, and Cunningham 1996). Hau bereziki garrantzitsua da munduan zehar 200 milioi migrari dauden garai honetan, migrari horiek aukera baitute beren jatorrizko hizkuntza komunitateari atxikituta jarraitzeko egungo medioei esker (satelite bidezko telebista zein irratia, telefonoa edota internet).

Kulturatik nortasunera jauzi eginez, Sinclairrek berak aztertu du nola osatu daitekeen komunitate bat telebistak eratutako espazio linguistikoaren gainean. AEBtan bizi diren 40 milioi latinamerikarrak, dio Sinclairrek, kubatarrek, mexikarrek, puertoricarrek eta abarrek ziren bertara iritsitakoan. Baina denen artean komunitate *latinoa* sortu da, talde nortasun gisa. Bilakatze horretan telebistak garrantzi handia du: izan ere satelitez eta espainolez publiko horren bila aritzen diren telebista mexikarrek, venezuelarrek eta abar ez baitzaizkie beren herrialdeetako herritarrei zuzentzen, ikusle *latinoei* baizik, horrela talde horren definizio eta eraketan lagunduz; hala talde barrura begira nola talde kanpora ere.

Azkenik, globalizazioaren aroko talde nortasunen inguruan egin diren beste ekarpen interesgarri batzuk transnazionalismoarekin zerikusia dutenak dira: alegia, kapital, merkantzien zein migrarien jario hazkorrak, jatorrizko herrialdeetik harrerako herrialderako joan etorrien, telefonozko komunikazioen, satelite bidezko irratit-telebistaren zein interneten eskutik espazio fisiko nazionalaz haratago osatutako nazio nortasunari deritzo transnazionalismoa (Karim 2003). Ikuspuntu honetatik burututa ikerkuntzak agerian uzten du nola testuinguru gero eta kulturantzagoetan, gaur egungo migrariet ez duten beren jatorrizko nortasunari uko egin beharrik, harrerako herrialdean integratu ahal izateko; aitzitik, jatorrizko nortasuna elikatu eta adieraztea harrerako jendartearen integratzeko estrategia bat izan daiteke. Halaber, ikerketa hauek erakutsi dute nola birdefinitzen diren, komunikabideen bitartez eraikitzen diren mugaz gaindiko eremu publikoetan, talde nortasunak, hala nazio nortasunak nola nortasun erlijiosoak ere. Adibide gisa, Marisa Milikowskik aztertu du Europa erdialdean dauden etorkin turkiarrek satelite bidezko telebistaren bitartez nola berreraikitzen duten beren nortasun turkiarra, emigraztean beraiekin eraman zuten Turkiaren irudi estatikoa eguneratuz eta, nolabait, “zama etnikoa” arinduz (Milikowski 2000). Peter Mandavilleren lanen arabera, bestalde, internet bidezko komunikazioaren bidez islama etengabe eguneratu eta berrinterpretatu egiten dute munduan sakabanututa dauden musulmanek (Mandaville 2001).

HEDABIDEAK ETA TALDE NORTASUNA

Orain arte esandakoengatik, bistan da hedabideak lehen mailako eragileak direla talde nortasunen eraikuntzan, bereziki talde handiez ari garelarik. Historiari so eginez gero, esan daiteke hedabideak izan direla, lehe-

nago eskola izan zen bezalaxe, XIX. mendearen amaieratik aurrera estatuetako nazio nortasunaren eragile handienak. Komunikabideen sistematik (prentsa, irrateria, telebista, zinema eta abar), XX. mendean zehar, *nazionalak* izan dira, hots, estatu nazioen mugean barnean eraikiak. Arago, estatuak arautuak, edota —Europako irrati-telebistaren kasuan— estatuaren beraren jabetzakoak. Salbuespenak salbuespen (adibidez prentsa “erregionala”), mende oso batez komunikabide horiek irudikatu duten *komunitatea* estatu nazioaren subjektua izan da, hots, estatuak definitutako nazioa. Gizartea (*society*) ere, hartara, gizarte nazionala izan da, are soziologiaren diskurtso zientifikoetan ere: gizarte espainola, gizarte alemana, eta abar (edota euskal gizartea, estatu asmoa duen taldea den neurrian). Eredu hau ordea aldatzen ari da azken hamarkadetan, estatua- ren mugez haratagoko komunikabideen hedapenarekin (satelitea, internet e.a.). Baina horrek talde nortasunen azpian agertzen den oinarria baino ez du aldatzen; ez ordea komunikabideek nortasun horiek eratzeko duten indarra.

Indar hori, gure aburuz, hiru dimentsiotan agertzen da: batetik, komunikabideak taldea definitzen duten ezaugarri objektiboen hedatzaileak dira; bestetik, komunikabideek eremu publikoaren euskarria ematen dute; azkenik, komunikabideak ikur hedatzaile garrantzitsuenak dira.

Taldea definitzeko ezaugarri objektiboen hedapenari dagokionez, esan dezagun komunikabideak kultur eragile garrantzitsuak direla. Horregatik, nortasuna eratzeko oinarri sendo bat eman dezakete: hizkuntza bat zein tradizio multzo bat garatu eta zabaltzean, taldeak bere burua nor bezala definitzeko oinarriak jartzen ari da. Gauza bera gertatzen da erlijioarekin: komunikabideen bitartez erlijio bat zabaltzean (islamaren kasuan dozenaka telebista erlijioso hedatzen dira munduan zehar), nortasun erlijiosoaren eratzeko oinarri objektiboak ezartzen ari dira.

Bestetik, eremu publikoa jendeak guztion auziez aritzen den eremu gisa hartzen badugu, komunikabideak ezinbestekoak dira talde handietako jendea harremanetan jartzeko. Jurgen Habermasek aztertu ditu XVII eta XVIII. mendeetan aldizkako prentsa, kafe-etxeak (*coffee-shops*), eta saloiak (*salons*) auzi publikoei buruzko eztabaidagune gisa izan zuten garrantzia (Habermas 1962). Espazio haietan, dio Habermasek, eratu zen eremu publiko burgesa, bertatik sortu zelarik talde nortasun handiko subjektu bat: iraultza burgesa gidatu zuen subjektua alegia. Gaur egun, komunikabideak dira eremu publikoaren euskarri nagusiak; jadanik esana dugunez, duela bizpahiru hamarkadatik hona estatu nazioaz gaindiko eremu publikoak eratzen ari direlarik. Espero izatekoa da, hartara, eremu publiko horietatik nortasun eta subjektu berriak osatuko direla.

Azkenik, komunikabideek era guztietako ikurrak hedatzen dituzte, jendearen identifikaziorako bideak emanez. Adibide gisa, futbolak nazio nortasunaren eragile gisa hartu duen garrantzia ezin uler daiteke komunikabideen jarduerarik gabe; horrek esplikatzeko du nola ehundaka etnia

Taldea definitzeko ezaugarri objektiboen hedapenari dagokionez, esan dezagun komunikabideak kultur eragile garrantzitsuak direla. Horregatik, nortasuna eratzeko oinarri sendo bat eman dezakete: hizkuntza bat zein tradizio multzo bat garatu eta zabaltzean, taldeak bere burua nor bezala definitzeko oinarriak jartzen ari da.

Komunikabideek talde nortasunean duten rola ulertzeak, hizkuntzak berak duena ulertzeko lagundu ahal digu. Batetik, komunikabideen osagai lehenetsia baita hizkuntza; bestetik, haiek bezala, hizkuntza ere talde nortasunaren eraikuntzako hiru dimentsiotan agertzen baita: taldea zedarritzen duten ezaugarri objektiboak hedatzen ditu (kultur transmisoreaz gain bera ere ezaugarri objektibo da); ikurrak hedatzen ditu (kontzeptuak); eta harremanetan jartzen ditu hiztunak (hizkuntza komunitatea).

ezberdin dituen Kamerunen futbola lehen mailako eragile bihurtu den nolabaiteko nazio nortasuna eraikitzeke (Vidacs 1997). Bestalde, komunikabideek era guztietako eredu eta ikurrak zabaltzen dituzte, talde nortasun txikiago eta arinagoak eraikitzeke, banakoei beren inguruan nor agertzeke: hiri leinuak (punk, skinhead, e.a.) lirajteke adibide ezagunena.

Komunikabideak, beraz, lehen mailako eragileak dira talde nortasunaren eraikuntzan. Bestelako eragile batzuk (kultura, estatua, erlijioa, gizarte maila e.a.) sakon aldatzen ari diren eta informazioaren gizarte deitzen zaion aro honetan, talde handien euskarri ezinbestekoak dira. Halaber, komunikabideek talde nortasunean duten rola ulertzeak, hizkuntzak berak duena ulertzeko lagundu ahal digu. Batetik, komunikabideen osagai lehenetsia baita hizkuntza; bestetik, haiek bezala, hizkuntza ere talde nortasunaren eraikuntzako hiru dimentsiotan agertzen baita: taldea zedarritzen duten ezaugarri objektiboak hedatzen ditu (kultur transmisoreaz gain bera ere ezaugarri objektibo da); ikurrak hedatzen ditu (kontzeptuak); eta harremanetan jartzen ditu hiztunak (hizkuntza komunitatea).■

ERREFERENTZIAK

- Anderson, B. 1993. *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*. Vol. 1983. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- Basterretxea, J.I. 1997. *Komunikazioaren eta informazioaren oinarriak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Baxok, Erramun, Pantxoa Etxegoin, Teresa Lekunberri, Iñaki Martínez de Luna, Larraitz Mendizabal, Igor Ahedo, Xabier Itzaina, and Roldan Jimeno. 2006. *Euskal nortasuna eta kultura XXI : mendearen hasiera*. Donostia: Sociedad de Estudios Vascos = Editorial Eusko Ikaskuntza, 12. <http://hedatuz.euskomedia.org/4097/1/ident.pdf>.
- Calhoun, C. 1991. Indirect Relationships and Imagined Communities: Large Scale Integration and the Transformation of Every Day Life. In *Social Theory for a Changing Society*, 95-121. Boulder, Colorado: Westview Press.
- Castells, M. 1997. *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 2: El poder de la identidad*. Madrid: Alianza.
- Habermas, J. 1962. *Historia y crítica de la opinión pública. La transformación estructural de la vida pública*. Vol. 1986. Mexiko: Gustavo Gili.
- Karim, K.H. 2003. *The media of diaspora*. London: Routledge.
- Letamendia, F. 1997. *Juego de espejos. Conflictos nacionales centro-periferia*. Madrid: Trotta.
- Mandaville, P. 2001. Reimagining Islam in Diaspora: The Politics of Mediated Community. *International Communication Gazette: International Journal for Communication Studies* 63, no. 2-3 (5): 169-186.

- Mellucci, A. 2001. *Vivencia y convivencia: teoría social para una era de la información*. Madrid: Trotta.
- Meyrowitz, Joshua. 1985. *No sense of place. The impact of electronic media on social behavior*. New York: Oxford University Press.
- Milikowski, M. 2000. Exploring a model of de-Ethnicization. *European Journal of Communication* 15, no. 4: 443-468.
- Sinclair, J., E. Jacka, and S. Cunningham. 1996. *New patterns in global television: peripheral vision*. Oxford University Press.
- Vidacs, Paul Nchoji and Bea. 1997. Football: Politics and Power in Cameroon. In *Entering the Field: New Perspectives on World Football*, ed. Nicole Toulis, Gary Armstrong, and Richard Giulianotti, 123-139. Oxford, New York: Berg.
- Wellman, B. 2002. Little Boxes, Glocalization, and Networked Individualism. In *Digital Cities II: Computational and Sociological Approaches*, 10-25. Berlin: Springer. <http://www.chass.utoronto.ca/~wellman/publications/littleboxes/littlebox.PDF>.